


Mugikor



 Lehen Hezkuntzako 3. zikloa eta Bigarren Hezkuntza | 6 - 15 saio

Soinua

Esku-hartzea

Espazio publikoa

Ekintza

Soinu-tresna mugikor bat egiteko prozesu kolektibo batetik abiatuta, espazio publikoa soinuaren bidez erabiltzeko joera politikoa aldatzen duten proposamen sortaileak garatzea.

Helburuak

- Iosu Zapataren obrara hurbiltzea.
- Hirigune batean esku hartzeko, soinu-tresna mugikor bat sortzea.
- Artelan bat egiteko talde-lana sustatzea.
- Iraunkortasunari buruz kontzientziatzea; birziklapena eta bizikleta, gizartea eraldatzeko tresna gisa lantzea.
- Espazio publikoen eta arkitektura iragankorraren erabilerari buruz hausnartzea, bizitza eta kultura-estilo jasangarri bati laguntzeko.

Aipamenak

Irrintzi / Landarte Irratia (Nafarroa): <https://www.youtube.com/watch?v=CiyePhDYXxY&t=1s>

Radio GAGA: <https://www.youtube.com/watch?v=YxKWWgPScf4>

Chico Trópico - Sampleo Vecinal: https://www.youtube.com/watch?v=Pe8_QJcQvBY

Francis Alys: <https://www.youtube.com/watch?v=WvkTLAdKP24>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. "MUGIKOR" proiektuan, bizikleta baten gainean soinu-tresna mugikor bat sortuko dugu. Arkitektura jasangarri txiki bat, irrati-plataforma bat online sortzeko eta soinu-dinamikak (paisaiaren erretratua, elkarrizketak, etab.) itxuraz esparru artistikoarekin loturarik ez duten lekuetara (plazak, terrazak, etab.) hurbiltzeko.

2. Iosu Zapataren "Radio Irrintzi" proiektuaren aurkezpen batetik abiatuta, "MUGIKOR" garatzeko beharrak eta helburuak baloratu eta hausnartzen ditugu:

Zer da hiriko esku-hartzea?

Espazio publikoa biziberritu eta topaketa parte-hartzaileak sor al daitezke artearen bidez?

Zein da hiri-testuinguru batean inguratzen gaituen soinua?

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Lantaldeak sortzen ditugu egin beharreko lanak banatuz. Talde hauek sarean dauden plataforma gisa ulertuko ditugu, eta garrantzitsua da, zeregin bakoitzaren beharren arabera sinergiak ahalbidetzea.

Hauek izan daitezke talde bakoitzaren erantzukizunak:

- Egitura mugikor birziklatu bat eraikitzea, bizikleta batera egokituz.
- Irrati libreen plataforma digitalak ikertzea (butt).
- Espazio publikoan nola eragin daitekeen aztertzea.
- Nola landu "streaming" kontzeptua alderdi sortzailetik.

2. Taldeetan, beste lan taldeen beharrak aztertzen ditugu, irtenbide komun bat zehazteko eta "MUGIKOR" aktibatu ahal izateko: egitura mugikorraren tamaina eta forma, proposamena garatzeko lekuak, instalazioaren behar teknikoak eta soinu-emisioa garatzeko sarerako konexioa.

3. Honako hauek izan daitezke beharko ditugun materialak: bizikleta bat, ordenagailu eramangarri bat, soinu-txartel bat, mikrofono bat, Interneterako konexioa eta material birziklatuak (taulak, kartoia, etab.).

4. Espazio publikoko esku-hartzeen egutegia egin, eta ekintza bakoitza dokumentatzen dugu, egindako esperientziaren laburpena lortzeko.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Ekintzak amaitu ondoren, sortutako dokumentazioa bistaratzen dugu, eta proiektuaren aztertu gabeko zein alderdik izan lezaketen jarraipena aztertzen dugu.

2. Geure buruari galdetzen diogu:

Zer beste plataforma mugikor sor ditzakegu kultur dinamika berriak, teknologia berriak, zinema, irakurketa-espazioa edo liburutegia, irrati eta abar lantzeko?

"MUGIKOR" proiektuari jarraipena ematen jarraitu daiteke eskola espazio publikoan geletatik kanpo ikusarazten duen tresna gisa?

Zein dira inguratzen gaituen soinuaren ondorioak? Esperientziak sortzen dituzte? Leku baten memoria osatzen dute?